


248.580 ospitalizazio erregistratu ziren 2018an Euskal AEn, % 1,3 gehiago

Ospitalizazioen % 50 65 urte edo gehiagoko pertsonen dagozkie

Euskal AEn ospitaleetan 248.580 ospitalizazio erregistratu ziren 2018an, asistentzia-helburua edozein zela ere (aurreko urtean baino % 1,3 gehiago), Eustatek landutako datuen arabera; hau da, Estatu osoaren % 5,1. Akutuen ospitaleak, egonaldi luze eta ertainekoak eta psikiatrikoak jasotzen dira zifra horretan. Bestalde, ospitalearen titulartasunari dagokionez, nabarmentzekoa da Euskal Autonomia Erkidegoan ospitalizazioen proportzio handiagoa dagoela ospitale publikoetan (% 83) Espainian baino (% 73).

Ospitalizazioen asistentzia-helburuaren arabera, ospitalizazioen % 94,8 akutuen ospitaleetan egin ziren (235.634 ospitalizazio), % 4,1 egonaldi ertain eta luzeko ospitaleetan (10.184 ospitalizazio) eta % 1,1 psikiatrikoetan (2.762).

Ospitalizatutako gizonen proportzioa (% 50,5) emakumezkoenaren (% 49,5) antzekoa izan zen. Estatuan, berriz, emakumeak nagusitu ziren (% 52,1). 65 urteko edo gehiagoko pertsonen gehiago erabili zituzten ospitaleak: ospitalizazioen erdiak (% 50,4); Estatuan, berriz, % 45,9.



Ospitalizatzeak arrazoi nagusiak, Estatu osoan bezala, arnasketako, zirkulazioko eta digestioko gaixotasunak izan ziren. Gaixotasun horiek ospitalizazioen % 38,8 hartu zuten (% 37,9 Espainian). Hala ere, 2017an ez bezala, arnasketako gaixotasunak zirkulazioko eta digestioko aurretik jarri ziren, eta, ondorioz, ospitalizatzeak arrazoi nagusia izan ziren Euskal AEn eta Espainian (% 13,2 eta % 13, hurrenez hurren). Bestalde, haurdunaldiaren, erditzearen eta erdiberriaroaren taldea zazpigarrena zen Euskal AEn (ospitalizazioen % 7), eta Espainian seigarrena izan zen (% 8,7), aparatu muskuloeskeletikoari eragiten dioten gaixotasunen aurretik.

Aipatutako hiru gaixotasun taldeak emakumeen ospitalizazioen % 33,8 eta gizonen % 43,7 izan ziren; Estatuan, berriz, % 32,2 eta % 44,1, hurrenez hurren.

Ospitaleratzeak Euskal AEko ospitaleetan, gaixotasun ugarienen arabera, laguntza-helburuari jarraiki. 2018

Diagnosticiko-multzo handiak	Guztira		Akutuak	Egonaldi ertaina-luzea	Psikiatrikoak
	Kopurua	%	%	%	%
Guztira	248.580	100	100	100	100
Amas-aparatua	32.935	13,2	12,8	27,5	-
Zirkulazio-aparatua	31.932	12,8	12,7	18,0	3,1
Digestio-aparatua	31.515	12,7	13,3	2,5	-
Tumoreak	23.534	9,5	9,4	13,0	0,2
Traumatismo eta lesioak	21.295	8,6	8,8	4,5	1,6
Aparatu muskulueskeletikoa	20.632	8,3	8,7	1,7	0,0
Haurdunaldiko, erditzeko eta erditze ondoko arazoak	17.497	7,0	7,4	-	-
Aparatu geniturinarioa	16.870	6,8	6,9	5,1	-
Sintomak eta ohiz kanpoko aurkikuntza klinikoak	12.336	5,0	5,1	2,7	0,1
Nahasmendu mentalak eta portaerarenak	7.549	3,0	2,1	1,2	92,9

(*) Portzentajea, ospitaleratze guztien gainean

Iturria: Eustat. Ospitaleetako erikortasun-estatistika

Asistentzia-helburua kontuan hartuta, egonaldi ertain eta luzeko ospitaleek eta psikiatrikoek (ospitalizazioen % 5,2) eredu desberdina dute akutuen ospitaleekin alderatuta, bai tratatutako patologiengatik, bai ospitaleko egonaldiaren iraupenagatik.

Egonaldi ertain eta luzeko ospitaleetan, ospitalizazioen % 45,5 arnas aparatuko gaixotasunei (% 27,5) edo zirkulazio-aparatuko gaixotasunei (% 18) zegozkien, eta batez besteko egonaldia 20 egunekoa izan zen. Ospitale psikiatrikoen kasuan, artapenen % 93 nahasmendu mentalei eta portaera-nahasmenduei zegozkien. Horien artean, eskizofrenia izan zen ospitalizatzeko arrazoi nagusia.

Ohar metodologikoa

Eragiketa estatistiko hau Estatistikako Institutu Nazionalarekin (INE) elkarlanean egin da.

Nazioarteko estatistikekin alderatu ahal izateko, ospitalizazio modalitatean 1 eguneko edo gehiagoko egonaldia duten gertakariak soilik hartzen dira kontuan; hau da, ez dira zenbatzen 0 eguneko egonaldia dutenak. Egonaldiaren iraupena honela kalkulatzen da: ospitalizazio-dataren eta alta-dataren artean igarotako egunen kopurua, ospitalizazio- edo alta-orduak kontuan hartu gabe.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tf: 945 01 75 62